



ZALDI MAMARROA

Ekaitz Goienetxea
Elkar, 2018

Pertsonaia: Amuma Maite, hilerrian bere seme zenduaren hilobi aurrean.
298. orrialdea

“Beitu, hemen, Herri honetan, egon dira hondamendiak eta desgraziak klase guztietakoak. Uholdeak, itsaso galarrenak, ama txerrien suteak, destrozoak leku guztietatik, gerra bat ere bai, zer ez dugu ikusi. Baina, hondamendi bat egon bada gogorra, hori zuen jenerazioarena izan da. Eta gogorra izan da ezin izan dugulako trankil negar egin, albokoak txarto begiratu barik. Beitu gogorra bada gero, etxe den-denetan egon da nonor eroan duena edo drogak, edo mamarroak. Eta den-denetan egon da negar egiteko beharrezana. Baina inoren berba txarrik ez entzutearren? Gorde, isildu eta traga”.

LANTZEKO GAIAK:

- Zeri buruz ari da hizketan pertsonaia? Ze hondamendiri buruz?
- Zein garaietan gertatu zen?
- Ze droga kontsumitzen zen? Nola? Zein eragin zituen?
- Ze esan nahi du pertsonaiak “mamarroa” esaten duenean?
- Zergatik ezin zen horren inguruan hitz egin?
Zergatik dio gorde, isildu eta traga?

Pertsonaia: Sonia
144. orrialdea

Eman zizkioten erretrobiralek ez zuten birusa frenatzea lortu, eta barrutik oso kaltetuta utzi zuten. Gogoan du ezjakintasun orokortua Herrian, eta beldurra zabaldu zela, gaixotasunarentzat botika eraginkorrik ez zutelako aurkitzen eta osasun zarbitzuek ez zutelako indar handirik ipintzen konponbidean, beraiek ere ez zekitelako askorik. Eta gogoan du Andorrara joaten zirela batzuk, farmako bila. Eta ama haiek nola hasi ziren antolatzen, farmaziak presionatzeko, ze zezaten xiringarik saldu. Botikariek presio horri men egin izana krimen hutsa izan zen, jarraitzen du pentsatzen, lehen bezala gaur, Soniak. Azkarrago zabaldu zen birusa, biderkatu. Birusa zabaltzearekin batera, zelula osasuntsuen kopurua murriztu zen bertigozko belozidadean, eta zelula faltak desnutrizio gehiegizkoa ekarri, gorputzak banan-banan kontsumitzeraino.

LANTZEKO GAIAK:

- Ze birusi buruz ari da testua? Ze gaixotasuni buruz?
- Badakizue zer diren erretrobiralak?
- Badakizue nolakoak izan ziren IHESAa agertu zeneko lehen urteak?
Euskal Herrian nola eragin zuen gaixotasunak?
- Gaur egun esistitzen da gaixotasun hau zuren ustez?
- Zer aipatzen da testuan xiringen salmentari buruz?
Zer ikusteko dauka horrek drogarekin?
Zergatik zabaldu zen gaixotasuna azkarrago?
- Zer iruditzen zaizu guraso batzuek hartutako erabakia?
- Zuk zer egingo zenuke?

Pertsonaia: Mikel, tabernan mozkortuta.
84.orrialdea

“Kontroletan-eta pilatzen duten mandangarekin zer uste duzue egiten dutela ba? Ba saldu. Klaro baietz. Horrela diru extra erosten dute partiketara, kuarteletan irabazten duten soldata miseria bat irudituko zaielako edo sin más, bazin dutelako eta punto: zeren, zu bazara polizia, nork bigilatuko zaitu zu? E? Ba klaro saltzen dutela eta sartzen dutela ere bai. Guardasobilek eurek. Fijo. Materiala eskura eduki eta ez duzu probatuko? Seguru badaudela guardia zibil jonkiak ere, ez dira egongo ba! Harrapatzen duten guztia deklaratu barik kuarteleko euren kuartoetan txutatzen ibiliko diren, jonki totalak, seguru. Eta hori da euskal gazteria osoa kontrolatzeko estrategia politiko super pentsatu bat? Benga. Hori larregi esatea da. Ez dut tragatzen. Bai erabiltzen dutela drogaren aitzakia kontrolak gazteei egiteko, pinta borroka dutenak fitxatzeko, ba klaro, hori bai. Kamello pintak dituen baten edo Intsumisioa! Kamixeta bat janzten duenaren artean, argi dago nor paratuko duten lehenago, está clarinete. Eta kamixeta batekin bazoaz eta pillatzen badizute papeli-naren bat, ya la has kagau: interrogatuko zaituzte kantzatzen hasi arte” [...] “Ni ez naiz txibatoa”

LANTZEKO GAIAK:

- Badakizu zertaz ari den pertsonaia testu zati honetan?
- Berak zer iritzi du?
- Zer iruditzen zaizu zuri?
Egia izan daiteke?
Enrtzun duzu noizbait horrelakorik?
- Interrogatorio bat zer den badakizu?
- “Kantzatzen hastea”k zer esan nahi du zure ustez?
- Zer lotura eduki dezake honek drogekin?